BILBOKO CONDE DE ARESTI EGOITZA-KARITATEKO BIZKAIKO FUNDAZIOAREN ARTEKO HITZARMENA, ZEINAREN BIDEZ DIRULAGUNTZA IZENDUN BAT BIDERATZEN BAITA, JANTOKI SOZIALAREN PROGRAMA GARATZEKO, 2026AN.

BILDUTAKOAK:

Alde batetik, Juan IBARRETXE KARETXE jauna, Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ordezkaria.

Eta bestetik, Francisco DE LA HERRÁN MATORRAS jauna, CONDE DE ARESTI EGOITZA-KARITATEKO BIZKAIKO FUNDAZIOAren izenean. Fundazio horren egoitza Bilbon dago (Bruno Mauricio ZABALA 22).

Alde biek elkarri onartu diote Hitzarmen hau egiteko eta sinatzeko legezko gaitasun osoa, eta horretarako

AZALDU DUTE:

1º.- CONDE DE ARESTI EGOITZA-KARITATEKO BIZKAIKO FUNDAZIOA (lehen Karitateko Bizkaiko Elkartea zena) irabazi-asmorik gabeko fundazioa da eta ehun urtetik gora aritu da etenik gabe. Denbora horretan jantoki eta zahar-etxearen funtzioak egin eta laguntza sanitarioaren zerbitzua eman izan du beste garai batzuetan. Gaur egun, bere helburu soziala beharrizan gorrian dauden Bilboko biztanleei edo behin-behineko egoiliarrei janaria ematea da. Hori pertsonak gizarteratzeko baliabide bat da eta Bilboko udalerriko etxerik gabeko pertsonekin esku hartzeko Proposamenaren barruan sartzen da. Proposamen hori sailen arteko lantaldeak egin zuen eta 2003an indarrean zegoen, eta etxerik gabeko pertsonentzako gizarte esku-hartzearen oinarrizko programa bat abian jartzeko beharrizana azaltzen da. Horren helburuak eskariak jasotzea, diagnostikoa egitea eta oinarrizko beharrizanak betetzeko (ostatua, janaria, arropak eta oinetakoak) behar diren prestazioak ematen dituzten baliabideetara bideratzea dira.

Fundazioaren jantokiaren kudeaketa, azken batean, udal-administrazioari bere helburuak lortzen lagunduko dion tresna da. Proiektu hau Gizarte Ekintza Arloko 2007ko Planean jasotako gizarte-politiketako "Gizarteratzea" oinarrizko programaren lehentasunen barruan dago. Gizarte Ekintza Arloak positiboki baloratzen du fundazio horren ibilbidea eta mahaikideekin egiten duen lana, eta haren xedea da, Gizarte Ekintza Arloaren interesekin eta helburuekin bat datorrena, etxerik gabeko pertsonei, gizarte-bazterkeriako egoeran daudenei edo baztertuta geratzeko arriskuan daudenei oinarrizko baliabide bat, elikadura,

CONVENIO ENTRE EL ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y LA FUNDACIÓN VIZCAÍNA DE CARIDAD-RESIDENCIA CONDE DE ARESTI POR EL QUE SE CANALIZA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE COMEDOR SOCIAL 2026

REUNIDOS

De una parte D. Juan IBARRETXE KARETXE, Concejal Delegado del Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao.

Y de otra, Don Francisco DE LA HERRÁN MATORRAS, en representación de la FUNDACIÓN VIZCAÍNA DE CARIDAD-RESIDENCIA CONDE DE ARESTI, con domicilio social en Bilbao, calle Bruno Mauricio ZABALA nº 22.

Ambas partes se reconocen plena capacidad legal para obligarse y suscribir el presente Convenio, y a tal fin

EXPONEN

1º.- Que la FUNDACIÓN VIZCAÍNA DE CARIDAD (anteriormente Asociación Vizcaína de Caridad)-RESIDENCIA CONDE DE ARESTI es una Fundación sin ánimo de lucro que a lo largo de más de cien años de actividad no interrumpida, ha venido realizando funciones asistenciales de comedor, asilo e, incluso, de asistencia sanitaria en épocas anteriores. En la actualidad, su objeto social comprende el facilitar alimento a vecinos de Bilbao, o transeúntes, que se encuentren en situación de extrema necesidad. Ello, constituye un recurso de inserción social que se incardina en la Propuesta de Actuación con Personas Sin Techo (PST) en el municipio de Bilbao, realizada por el Grupo de trabajo interáreas, vigente ya en el año 2003, y donde se contempla la necesidad de poner en marcha un programa básico de intervención social para las personas sin hogar cuyos objetivos sean la recepción de la demanda, y realización de un diagnóstico y derivación a los recursos que realizan las prestaciones que se precisan para satisfacer las necesidades básicas (alojamiento, alimentación, vestido y calzado).

La gestión del Comedor de la Fundación constituye en definitiva, un instrumento que coadyuva a la Administración municipal en el logro de sus objetivos. Este Proyecto se encuadra dentro de las prioridades del programa básico “Inserción Social” de las Políticas sociales contempladas en el Plan 2007 del Área de Acción Social. El Área de Acción Social valora positivamente la trayectoria de la antedicha Fundación y el trabajo que desarrolla con sus comensales, constituyendo el objeto del mismo, materia afín a los intereses del Área de Acción Social y a sus objetivos, dentro de la prestación de ofrecer un recurso básico, la alimentación, a personas sin techo, en situación de

eskaintzeko prestazioaren barruan, etxerik gabeko pertsonentzako esku-hartze sozialeko oinarrizko programan ezarritako irizpideen arabera.

exclusión social o en riesgo de exclusión, de acuerdo a los criterios establecidos en el Programa Básico de intervención social para las personas sin techo.

2º.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7.i) artikuluak, 73 artikuluak, 74 artikuluak eta horrekin bat datozenek ezartzen dute herri-administrazioek eskumena daukatela irabazi-asmorik gabeko ekimenaren partaidetza bilatzeko eta sustatzeko, gizarte zerbitzuen arloko prestazioak emateko.

2º.- Que la Ley de Servicios Sociales 12/2008 de 5 de diciembre, contempla en su Art. 7.l), 73, 74 y concordantes, la facultad de las Administraciones Públicas para recurrir y fomentar la participación de la iniciativa privada sin ánimo de lucro, para el desarrollo de prestaciones en el campo de los servicios sociales.

3º.- Udalaren Osoko Bilkuran 2026 ekitaldirako onetsitako Gizarte Ekintza Saileko aurrekontuak **520.552,00**euroko laguntza izenduna ezartzen du CONDE DE ARESTI EGOITZA-KARITATEKO BIZKAIKO FUNDAZIOArentzat.APG 2026/31000/23150/4819900.

3º.- Que en el Presupuesto del año 2026 del Área de Acción Social aprobado por el Excmo. Ayuntamiento en Pleno, está prevista una subvención nominativa por importe total de **520.552,00€** a favor de la FUNDACIÓN VIZCAÍNA DE CARIDAD-RESIDENCIA CONDE DE ARESTI. APG 2026/31000/23150/4819900.

4º.- CONDE DE ARESTI EGOITZA-KARITATEKO BIZKAIKO FUNDAZIOAK 2026 urtean burutuko duen programaren Proiektua eta honen aurrekontua aurkeztu ditu (eranskin 1 eta 2 moduan gehitzen dira) eta Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak haintzat hartzen du aipatutako programaren burutzea. **Hitzarmena eta eranskin biak sinatu behar dira.**

4º.- Que la FUNDACIÓN VIZCAÍNA DE CARIDAD-RESIDENCIA CONDE DE ARESTI ha presentado el Proyecto del programa a desarrollar en el ejercicio 2026, junto con su presupuesto de ejecución (se adjuntan como anexos 1 y 2) y que el Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao valora positivamente la realización del citado programa. Ambos anexos deberán firmase, al igual que el presente convenio.

5º.- 121/2014 Eusko Jaurlaritzako DEKRETUA, ekainaren 25koa, CONDE DE ARESTI EGOITZA-KARITATEKO BIZKAIKO FUNDAZIOA onuragarria dela aitortzen da, eta aitorpen honek, Gizarte Zerbitzuei buruzko 5eko abenduaren 12/2008 Legearen 74.3 artikuluaren arabera, elkarteak lehentasuna daukala dirulaguntzak eskuratzeko orduan, suposatzen du.

5º.- Que la FUNDACIÓN VIZCAÍNA DE CARIDAD-RESIDENCIA CONDE DE ARESTI, es una entidad privada sin ánimo de lucro, declarada a los efectos del artículo 74.3 de la Ley 12/2008, de interés social por Decreto 121/2014, de 25 de junio del Gobierno Vasco, lo que supone la prioridad de la entidad a la hora de percibir subvenciones.

Horren ondorioz, alde biek,

ADOSTU DUTE:

LEHENA.- OBJEKTU

Elkarteari diru-laguntza emateko prozedura bideratzea Etxerik gabeko pertsonei arreta emateko udal programaren bidez bideratutako pertsonei janaria ematen zaiela finantzatzea. Pertsona horiek Eranskinean dagoen janaria emateko prozeduran ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, ondoren ezartzen diren klausulekin bat etorrita.

BIGARRENA.- JARDUTEKO PRINTZIPIO OROKORRAK

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoaren arabera, Hitzarmen honen barruko jarduketak lege horretako 7. artikuluan jasotako printzipioekin bat etorrita burutuko dira. Hona hemen:

En consecuencia las partes firmantes,

ACUERDAN

PRIMERO.- OBJETO

Canalizar la subvención nominativa a la entidad para financiar la prestación de alimento a las personas derivadas a través del programa municipal de atención a las personas sin techo (PST) que reúnen los requisitos establecidos en el procedimiento para la prestación de alimento que se adjunta como Anexo único, con sujeción a las cláusulas que a continuación se indican.

SEGUNDO.- PRINCIPIOS GENERALES DE ACTUACIÓN

De conformidad con lo regulado en la Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, las intervenciones objeto del presente convenio se regirán por los principios contenidos en el art. 7 de la antedicha Ley, tales como:

a) **Erantzukizun publikoa.** Botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan araututako prestazioen eta zerbitzuen eskaintza eta horietaz baliatzeko modua bermatuko dute. Nolanahi ere, sistemara sartzeko prestazioen, eskarien lehenengo harrerako prestazioen kudeaketa publikoa bermatuko dute.

b) **Unibertsaltasun.** Botere publikoek Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoan jasotzen diren prestazioez eta zerbitzuez baliatzeko eskubidea bermatuko diete eskubide horren titular diren pertsona guztiei.

c) **Berdintasuna eta ekitatea.** Euskal Autonomia Erkidegoko herri- administrazioek prestazio eta zerbitzu horietaz ekitatearen irizpidearen arabera baliatzea bermatuko dute, baldintza sozial edo pertsonalengatik bereizkeriarik eragin gabe, ekintza positiborako edo aukera eta tratu- berdintasunerako neurriak aplikatzearen kalterik gabe, eta beren jardunean gizon eta emakumeen berdintasunaren eta dibertsitate sexualaren ikuspegiak integratuz, bai eta belaunaldi ezberdinak eta kultura ezberdinak aintzat hartzeko ikuspegia ere. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko herri- administrazioek, hizkuntza araudia betetze aldera, pertsonek euskara edo gaztelania erabiltzeko duten askatasuna bermatuko dute.

d) **Hurbiltasuna.** Gizarte zerbitzuak, haien izaerak aukera ematen duenean, ahalik eta deszentralizaziorik .handienarekin eskainiko dira.

e) **Prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa.** Bazterketa sortzen duten edo bizimodu autonomoa mugatzen duten egiturazko kasuen azterketa eta prebentzioa egingo dute gizarte- zerbitzuek. Era berean, herritarrak beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzea izango dute helburu, eta normalizazioa sustatuko dute, beste arreta- sistema eta politika publiko batzuez balia daitezen lagunduz.

f) **Arreta pertsonalizatua eta integrala eta arretaren jarraitasuna.** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak arreta pertsonalizatua eskaini behar du, pertsona eta/edo familia bakoitzaren beharrizan bereziei egokitua eta haien egoeraren ebaluazio integral batean oinarritua, eta arreta jarraitua eta integrala izango dela bermatu beharko du, nahiz eta administrazio edo sistema bata baino gehiago jardun.

g) **Esku-hartze interdisziplinarioak.** talde-lana sustatuko da, bai eta gizarte- arloko esku- hartzean aritzen diren era bateko eta besteko lanbideetako ekarpenak eta egokiak diren guztiak aintzat hartzea ere.

a) **Responsabilidad pública**. Los poderes públicos garantizarán la disponibilidad y el acceso a las prestaciones y servicios regulados en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales. En todo caso, garantizarán la gestión pública directa de las prestaciones de acceso a primera acogida de las demandas.

b) **Universalidad.** Los poderes públicos garantizarán el derecho a las prestaciones y servicios previstos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios a todas las personas titulares del mismo.

c) **Igualdad y equidad.** Las administraciones públicas vascas garantizarán el acceso a las prestaciones y servicios con arreglo a criterios de equidad, sin discriminación alguna asociada a condiciones personales o sociales, y sin perjuicio de la aplicación de medidas de acción positiva y de igualdad de oportunidades y de trato, e integrando en sus actuaciones la perspectiva de la igualdad de sexos y de diversidad sexual, así como las perspectivas intergeneracional e intercultural. Asimismo, las administraciones públicas vascas garantizarán, en cumplimiento de la normativa lingüística, la libertad de las personas para utilizar el euskera o el castellano.

d) **Proximidad.** La prestación de los servicios sociales, cuando su naturaleza lo permita, responderá a criterios de máxima descentralización.

e) **Prevención, integración y normalización.** Los servicios sociales se aplicarán al análisis y a la prevención de las causas estructurales que originan la exclusión o limitan el desarrollo de una vida autónoma. Asimismo, se orientarán a la integración de la ciudadanía en su entorno personal, familiar y social y promoverán la normalización, facilitando el acceso a otros sistemas y políticas públicas de atención.

f) **Atención personalizada e integral y continuidad de la atención**. El Sistema Vasco de Servicios Sociales deberá ofrecer una atención personalizada, ajustada a las necesidades particulares de la persona y/o de la familia y basada en la evaluación integral de su situación, y deberá garantizar la continuidad e integralidad de la atención, aun cuando implique a distintas administraciones o sistemas.

g) **Carácter interdisciplinar** de las intervenciones, promoviendo el trabajo en equipo y la integración de las aportaciones de las diversas profesiones del ámbito de la intervención social y cualesquiera otras que resulten idóneas.

h) **Koordinazioa eta lankidetza.** Euskal Autonomia Erkidegoko herri- administrazioak koordinazio eta lankidetza- betebeharraren arabera jardungo dira ekarren artean, bai eta irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimen pribatuarekin ere. Koordinazio eta elkarlan horrek gainditu egin beharko du gizarte- zerbitzuen arloa, eta beste babes- sistema eta politika publiko batzuetara ere hedatu beharko da.

i) **Gizarte- ekimena sustatzea.** Irabazi asmorik gabeko gizarte- ekimenak gizarte- zerbitzuen arloan parte har dezan sustatuko dute botere publikoek, bereziki Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman parte har dezan.

j) .**Herritarren parte hartzea.** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren plangintzan eta garapenean, pertsonak eta taldeak elkartasunezko lankidetzan ari daitezen sustatuko dute botere publikoek, bai eta erabiltzaileen parte- hartzea ere.

k) **Kalitatea**. Prestazio eta zerbitzu nagusiek kalitate-estandar gutxieneko batzuk izan ditzaten bermatu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek.

h) **Coordinación y cooperación**. Las administraciones públicas vascas actuarán de conformidad con el deber de coordinación y cooperación entre sí, así como con la iniciativa social sin ánimo de lucro. Esta coordinación y cooperación deberá trascender del ámbito de los servicios sociales y extenderse a otros sistemas y políticas públicas de protección.

i) **Promoción de la iniciativa social**. Los poderes públicos promoverán la participación de la iniciativa social sin ánimo de lucro en el ámbito de los servicios sociales, y en particular en el Sistema Vasco de Servicios Sociales.

j) **Participación ciudadana**. Los poderes públicos promoverán la colaboración solidaria de las personas y de los grupos, así como la participación de las personas usuarias, en la planificación y el desarrollo del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

k) **Calidad.** Las administraciones públicas vascas deberán garantizar la existencia de unos estándares mínimos de calidad para los principales tipos de prestaciones y servicios.

HIRUGARRENA.- ZERBITZUA JASOKO DUTEN PERTSONAK ETA SARBIDEA

Etxerik gabeko pertsonei arreta emateko Udal Programatik bidaltzen diren pertsonak dira hartzaileak, janaria emateko prozedurari buruzko eranskineko baldintzak betetzen badituzte.

TERCERO.- PERSONAS DESTINATARIAS Y ACCESO

Son destinatarias, las personas enviadas desde el Programa Municipal de Atención a personas sin techo que cumplen los requisitos que figuran en el anexo que se adjunta, relativo al procedimiento para la prestación de alimento.

LAUGARRENA.- ERAKUNDEAREN FUNTZIOAK ETA KONPROMISOAK

CONDE DE ARESTI EGOITZA BIZKAIKO FUNDAZIOAk, hitzarmen honen helburua den zerbitzua garatzeko, janaria emateko prozeduraren berezko funtzioak garatuko dituela hitz ematen du, hain zuzen ere honela:

- Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzutik bideratutako pertsonentzat, gehienez, 302 zerbitzu prestatu eta zerbitzatzea egunero.
- "Koordinazio Batzordean" edo udalaren eskariz jantoki sozialen zerbitzuaren inguruan eratzen den beste edozein erakundetan parte hartzea, adibidez etxerik gabeko pertsonei arreta emateko udal programaren Batzorde Teknikoan, beti ere janaria emateko prozedurarekin lotuta.
- Janariak prestatzeko eta zerbitzatzeko instalazio egokiak eskaintzea, indarrean dauden legeekin bat etorrita.

CUARTO.- FUNCIONES Y COMPROMISOS DE LA ENTIDAD

La FUNDACIÓN VIZCAÍNA RESIDENCIA CONDE DE ARESTI para el desarrollo del Servicio objeto del presente Convenio, se compromete al desarrollo de las funciones propias del procedimiento para la prestación de alimento, con el siguiente alcance:

- Preparar y servir diariamente un máximo de 302 servicios a las personas derivadas desde el Servicio Municipal de Urgencias Sociales.
- Participar en la "Comisión de Coordinación" o en otros Organismos que pudieran establecerse a requerimiento municipal, relacionadas con el servicio de comedores sociales, tales como la Comisión Técnica del Programa municipal de atención a las PST en relación con el procedimiento para la prestación de alimento.
- Ofrecer las instalaciones adecuadas, con arreglo a la normativa vigente, tanto para elaborar, en su caso, como para servir las comidas.

- Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzutik bideratutako pertsonei gehienez 302 zerbitzu prestatu eta zerbitzatzea egunero.
- Instalazioak mantentzea eta indarrean dagoen araudira egokitzea, bai elaborazioan, bai janari-zerbitzuan.
- Infekzioen kontrolari dagokionez une bakoitzean indarrean dauden protokoloak eta arauak mantentzea.
- Erabiltzaileek bazkari osoa, osasungarria eta beren behar espezifikoen araberakoa egiteko aukerari eustea.
- Elikagaien Bankuaren eta beste erakunde batzuen produktuen dohaintzak ahalik eta gehien aprobetxatzea janariak prestatzeko.
- "Tapers" sistema mantentzea otordu presentzialak egin ezin dituztenentzat.
- Gorabeheren parteen eguneroko erregistroa mantentzea.
- Egunero ematea asistentzien berri plataforman.
- Koordinazioa beste jantoki, erakunde eta entitate batzuekin.
- Jantokian segurtasun-neurriak mantentzea.
- Sortzen diren behar berrien araberako beste ekintza batzuk bere gain hartzeko prest egotea eta, ahal duen neurrian, erantzun eraginkorra ematen saiatzea.
- Baldintzak betetzen dituzten eta hala eskatzen duten erabiltzaileak Arestiko Kondearen egoitzan sar daitezen laguntzea.
- Elkarteak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko du, jardueraren ondorioz gerta litezkeen arriskuak estaltzeko.
- Helburu sozial hau modu normalean garatzeko, behar diren beste langile egokiz hornitzea zerbitzua.
- Gizarte Ekintza Sailak zerbitzuari buruz eska ditzakeen datu eta txosten guztiak ematea.
- Informazioa eta, behar izanez gero, beste baliabide batzuetara bideratzea.

- Preparar y servir diariamente un máximo de 302 servicios a las personas derivadas desde el Servicio Municipal de Urgencias Sociales.
- Mantener las instalaciones, adecuándolas a la normativa vigente, tanto en la elaboración, como en el servicio de comidas.
- Mantener los protocolos y las normas que estén en vigencia en cada momento en relación al control de infecciones.
- Mantener la opción de que las persona usuarias puedan realizar una comida completa, saludable y de acuerdo a su necesidades específicas.
- Aprovechar al máximo las donaciones de productos del Banco de Alimentos y otras entidades en la elaboración de las comidas.
- Mantener el sistema de “tapers” para las personas que no puedan realizar las comidas presenciales.
- Mantener el registro diario de partes de incidencias.
- Reportar diariamente las asistencias en la plataforma.
- Coordinación con otros comedores, organismos y entidades.
- Mantener las medidas de seguridad en el comedor.
- Mantenerse en disposición de asumir otras acciones en función de las nuevas necesidades que puedan ir surgiendo e intentar dar una respuesta eficaz, en la medida de sus posibilidades.
- Favorecer el ingreso en la Residencia Conde de Aresti de las personas usuarias que cumplan los requisitos y así lo soliciten.
- La Entidad deberá suscribir un seguro de responsabilidad civil para la cobertura de los riesgos derivados de la actividad que desarrolla.
- Dotar del personal suficiente y adecuado para el normal desarrollo del objeto social que se pretende.
- Aportar cuantos datos e informes que sobre la prestación del servicio pueda serles requeridos por el Área de Acción Social.
- Información, y, en su caso, derivación a otros recursos existentes.

- Sei hilabetetik behin, Elkarteak programaren garapenari buruzko Txosten-Memoria deskribatzailea eta aztertzailea aurkeztuko dio Gizarte Ekintza Sailaren Urgentziazko Bizitokien Negoziatuari. Txosten horretan jasoko dira erabiltzaileen kopurua eta jarduerei buruzko gorabeherak.

Hitzarmenaren indarraldia amaitu eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean (**2027ko uztailaren 1a baino lehenago**), Diru-laguntzei buruzko Arautegiko 74. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerakoetan (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) ezarritako eran, programan egindako gastuen justifikazioa aurkeztu behar da eta honek nahitaez, dokumentazio hau eduki behar du:

a) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak bete behar direla justifikatzeko **Urteko Memoria**. Aipatu behar da ze ekintzak egin dira eta hauen emaitzak. Memoriak datuak jasotzeko eta kudeatzeko sistema jakin bat eduki beharko du, datuak sexuaren, adin-taldeen eta jatorrizko herrialdearen arabera jaso eta kudeatu ahal izateko. Beste alde batetik, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista kontuan hartuko da dokumentazioan. **Memoria hau 2027ko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu behar da euskaraz eta gaztelaniaz**. **(Erregistro Orokorraren bidez)** Era berean, diruz lagundutako ekintzak zein hizkuntzatan gauzatu diren zehaztu beharko dute.

b) **Diru-sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa: D**iruz lagundutako jardueretan egindako gastuen egoera-orri adierazgarria, multzoka, eta, hala bada, hasieran izan duten aurrekontua (hitzarmeneko 2. ERANSKINEAN jasota daude) eta egon diren desbideratzeak.

c) **Auditoreak prestatutako txostena** aurkeztu behar du erakundeak. Horri buruz, zehaztapen hauek:

1. Auditoreetako bat Kontabilitateko eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpe dagoen Kontu Ikuskarien Erregistro Ofizialean jardunekoa dela agertu beharko da.

2. Auditoreak justifikazio-kontua berrikusi behar du, oro har, Estatuko sektore publikoaren eremuan kontuen auditoreek diru-laguntzen ikuskapenean nola jardun behar duten arautzen duen maiatzaren 17ko EHA 1434/2007 Aginduan (EAOn argitaratu zen 2007ko maiatzaren 25ean, 125. zenbakia) ezarritako zenbatekora arte.

3. Auditorearen izendapena: Erakunde onuradunak urteko kontuen auditoretza egin behar badu, auditore berak berrikusi dezake diru-laguntzaren justifikazio-kontua. Erakunde onuradunak urteko kontuen auditoretza egin behar EZ badu, izendapena erakundeak egingo du.

- Semestralmente, se presentarán al Área de Acción Social, Jefatura de Sección de Sección de Inclusión y Urgencias Sociales, un Informe-Memoria descriptivo y analítico sobre el funcionamiento del servicio de comedor con los datos del número de personas usuarias, alcance de las actividades.

Dentro del plazo máximo de seis meses desde la finalización del año de vigencia del Convenio (antes del 1 de julio de 2027) de conformidad a lo dispuesto en el artículo 74 y demás concordantes del Reglamento de Subvenciones (Real Decreto 887/2006, de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones), deberá presentar la cuenta justificativa del gasto realizado, que contendrá la siguiente documentación:

a) Una Memoria Anual justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. La memoria deberá contener un sistema de recogida y gestión de datos desagregados por sexo, franjas de edad y país de origen. Asimismo deberá tener en cuenta la utilización no sexista del lenguaje y de la imagen en la documentación aportada. Dicha memoria deberá presentarse en euskera y castellano antes del 1 de febrero de 2027. (vía Registro General). Del mismo modo, deberan detallar en que idioma se han llevado acabo las acciones objeto de la subvencion.

b) Balance económico de ingresos y gastos que, contendrá un estado representativo de los gastos incurridos en la realización de las actividades subvencionadas, debidamente agrupados, y, en su caso, las cantidades inicialmente presupuestadas (que figuran en el ANEXO 2 al presente convenio), y las desviaciones acaecidas.

c) Informe elaborado por la entidad auditora. Al respecto:

1. La entidad auditora ha de estar inscrito como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.

2. La entidad auditora ha de realizar la revisión de la cuenta justificativa con el alcance establecido, con carácter general, en la Orden EHA/1434/2007, de 17 de mayo (publicada en el B.O.E. n.º 125 de 25 de mayo de 2007), por la que aprueba la Norma de actuación de los auditores de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público estatal.

3. Designación de la entidad auditora: En el supuesto de que la entidad beneficiaria esté obligada por Ley a auditar cuentas anuales, se permite que esa misma entidad auditora revise la cuenta justificativa de la subvención. En el supuesto de que la entidad beneficiaria NO esté obligada a auditar sus cuentas anuales, la designación la realizará la entidad.

4. Auditoretzak eragiten duen gastua diruz lagundu daitekeen gastutzat har daiteke, betiere gastu hori Udalaren diru-laguntzaren auditoretza egiteko bada.

5. Elkarteak auditorearen esku jarri behar ditu Diru-laguntzei buruzko Legearen 14.1 f) artikuluan adierazitako liburuak, erregistroak eta agiriak.

6. Elkarteak, goian adierazitako agiriak gorde behar ditu, Lege horretan aurreikusitako egiaztatze- eta kontrol-jarduerak egiteko.
Programa gauzatzeko epearen barruan egindako gastuen jatorrizko ziurtagiriak mota biko gastuak bereiztu behar ditu horretarako

a).- Programarekin **zuzenean lotutako kostuak:** oso-osorik justifikatu beharko dira, fakturen eta balio bereko gainerako ziurtagirien bidez. **Gastuak justifikatzeko agirietan**, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

- Onuradunaren identifikazioa.
- Gastua helburu den programaren deskribapena, programa gauzatzearekin zuzenean lotuta egongo dena.

Era berean, justifikatzen den programari buruzkoak bakar-barrik izango dira justifikazio-agiriak.

Salbuespen moduan, jarduerak egiten dituztenak enpresak edo profesionalak ez direnean, emandako zerbitzuaren zenbatekoaren ordainagiriak aurkeztuz justifikatu daiteke dena delako zerbitzua; horrekin batera, hartzailearen identifikazio-agiria (NANa, IFZ edo pasaportea) eta, 200 eurotik gorako zenbatekoa denean, ordaindu beharrekoa hartzailearen bankuko kontuan sartu dela ziurtatzen duen agiria.

Langileen gastuak justifikatzeko nominak eta gizarte segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.

4. El gasto derivado de la entidad auditora, podrá considerarse como gasto subvencionable, siempre y cuando el mismo se circunscriba únicamente a la entidad auditora de la subvención municipal.

5. La entidad ha de poner a disposición de la entidad auditora los libros, registros y documentos que le sean exigibles en aplicación del art. 14.1, apartado f) de la Ley de Subvenciones.

6. La entidad ha de conservar los documentos arriba mencionados, al objeto de las actuaciones de comprobación y control previstas en la Ley.
La documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, ha de distinguir, a estos efectos:

a).- Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente. Los documentos que soporten la justificación de gastos, incluirán, en todo caso, los siguientes datos:

- La identificación de la entidad beneficiaria..
- La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican.

Con carácter excepcional, en supuestos en que ocasionalmente, las actividades sean llevadas a cabo por personas que no ostenten la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200 €, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

b).- Aurrekontuko fitxan erakundeak adierazi dituen **zeharkako kostuak** (hitzarmen honetako 2. Eranskina), ez dira agirien bidez justifikatu beharko, horien justifikazioa beren-beregi eskatu ezean. Kostu horiek diruz lagundutako jardueraren erakunde edo pertsona onuradunari egotziko zaizkie, kontabilitateko printzipioen eta arauen arabera, arrazoizko zatian eta betiere, kostu horiek jarduera egin den aldikoak badira; egotzitakoa ezin izango da, inolaz ere, diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen zenbatekoa baino handiagoa izan. Programa aurrekontuen fitxan adierazita dago (hitzarmen honetako 2.. ERANSKINA).

b).- Con respecto a los costes indirectos señalados por la entidad en la ficha de presupuesto (Anexo 2 al presente convenio), salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al porcentaje de los costes directos del programa subvencionado, que figura en la ficha de presupuestos (ANEXO nº 2 al presente convenio).

Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaera dutenak argi eta garbi, premia-premiazkoak direnean eta hitzarmenean ezarritako epearen barruan gauzatzen direnean. Diruz lagundutako gastuak eskuratzeko kostua ezin da izan horiek merkatuan duten balioa baino handiagoa. Diruz lagundutako gastuak eskuratzeko kostua ezin da izan horiek merkatuan duten balioa baino handiagoa. **Amortizazioak ezin dira izan diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak**, ziurtatzea oso zaila delako. Era berean, gauzatan jasotako sarrerak ere ez dira "sarreratzat" joko, arrazoi bera dela-eta.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado. No se admiten como gasto subvencionable las amortizaciones de inversiones, por las dificultades de comprobación de las mismas. Así mismo, tampoco podrán considerarse como “ingresos”, los denominados ingresos en especie, por idéntico motivo.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Lege horretan ezarritakoaren arabera, kontratu txikietarako zenbatekoa, gehienez, zerbitzuen kontratazioetarako eta horniduretarako 14.999,99 €-koa (+ BEZ) da eta obrak direnean 39.999,99 €-koa (+BEZ). Diruz lagunduko den gastuaren zenbatekoak aipatutakoak baino handiagoak izanez gero, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaileren eskaintza eskatu behar du zerbitzuok kontratatu aurretik. Salbuespenak: lehenengoa, kontratuaren ezaugarri bereziak direla eta, merkatuan horiek emateko, eskaintzeko edo hornitzeko entitate nahikorik ez egotea eta bigarrena, gastua diru-laguntza eskatu aurretik egin izana. Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan edota diru-laguntzaren eskabidean jaso behar dira eta euren artean aukeratzeko kontuan hartu behar dira eraginkortasuna eta ekonomia. Eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez bada, memoria egin behar da eskaintza hori aukeratu izana beren-beregi justifikatzeko.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 para el contrato menor (14.999,99,-€ + IVA para la contratación de servicios, suministros y 39.999,99,-€+IVA para el caso de obras), la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes empresas proveedoras previamente a la contratación de los mismos, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Justifikazio-memoriaren dokumentazioa **Erregistro Orokorrean aurkeztu behar izango da.**

La documentación relativa a la Memoria justificativa, deberá presentarse por Registro General.

- Gizarte Ekintza Sailak beste erakundeekiko justifikazio ekonomikoa egiteko betebeharrak edukiz gero, Elkarteak betebehar horiek betetzeko beharrezko laguntza emateko konpromisoa hartzen du.

- En el caso de que el Área de Acción Social tenga otras obligaciones de justificación económica frente a otras instituciones, la Asociación, se compromete a colaborar en todo lo necesario para dar cumplimiento a dichas obligaciones.

- Bilboko Udalak emandako dirulaguntza eta beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoak bateragarria da. Gizarte Ekintza Sailari jakinaraztea diruz lagundutako programa finantzatuko duten beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk. Jakin bezain laster jakinaraziko zaio sailari eta agirien bidez justifikatu beharko da. **Edozelan ere, dirulaguntzen eta bestelakoen bidez lortutako finantzazioaren zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa Horrelakoetan, Udalari itzuli beharko zaio dagokion kopurua.**

- La subvención concedida por el Ayuntamiento de Bilbao es compatible con las de otras administraciones o entes público o privados. Se tiene que comunicar al Área de Acción Social la obtención de otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos que financien el programa subvencionado. Esta comunicación deberá realizarse tan pronto como se conozca y justificarla documentalmente. En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado.

- Entitateak konpromisoa hartzen du Bilboko Udaleko logotipoa jartzeko programaren garapenetik sortzen diren dokumentuetan; besteak beste, gizarte eta hezkuntza arloko proiektuetan, txostenetan, informazio-triptikoetan eta Programari buruzko iragarkietan edo jardueretan.

- La entidad se compromete a insertar el logotipo del Ayuntamiento de Bilbao en los documentos resultantes del desarrollo del programa, tales como proyectos socioeducativos, informes, trípticos informativos y publicidad sobre el Programa o las actividades del mismo.

- Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzko 19/2013 Legea aplikatuko da publizitate aktiboari dagokionean, lege horretako 5 artikuluak urtebetean 100.000 eurotik gorako diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten edo urteko sarrera guztien gutxienez % 40 diru-laguntza publikoa duten erakunde pribatuentzat ezarritako edukiarekin eta mugekin, betiere gutxienez 5.000 euroko kopurura heltzen direnean.

- Será de aplicación lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la información pública y Buen Gobierno, en lo relativo a la publicidad activa con el contenido y las limitaciones del artículo 5 de la Ley, a las entidades privadas que perciban durante el período de un año ayudas o subvenciones públicas en una cuantía superior a 100.000 euros o cuando al menos el 40% del total de sus ingresos anuales tengan carácter de ayuda o subvención pública, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros.

- Programaren kanpoko ordezkaritza, bai entitateen, erakundeen, organismoen, pertsona publiko edo pribatuen arteko harremanetarako, bai hedabideekiko harremanetarako, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Gizarte Ekintzako Sailari, Prentsa Kabinetearekin koordinatzearren eta komunikazioaren xedea jakin dezan eta haien edukiak eta ordezkaritza adostua izan dadin, edo, hala balegokio, Udalak gauzatu dezan, hala behar duela irizten badio

- La representación externa del programa, tanto a efectos de relación entre entidades, instituciones, organismos, personas públicas o privadas, como con los medios de comunicación deberá ser comunicada previamente al Área de Acción Social para su coordinación con el Gabinete de Prensa, a los efectos de que conozca el objeto de la comunicación y para que los contenidos y la presentación de los mismos sea consensuada o, en su caso, realizada por el Ayuntamiento, si así se valorase.

- Hitzarmen honen xede diren progama kudeatzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonalaren gizarte-segurantzako gastuak hitzarmena sinatu duen enpresa edo elkartearen kontura eta horien kontura soilik izango dira. Horrek esan nahi du inoiz ezin izango direla Bilboko Udaleko pertsonaltzat edo horren menpeko pertsonaltzat hartu."

- Los gastos de Seguridad Social y otros que se deriven del personal que preste sus servicios para la realización del objeto de este Convenio, serán de cuenta única y exclusivamente de la Asociación suscribiente, lo cual indica que nunca podrán considerarse como personal adscrito al Ayuntamiento de Bilbao, ni bajo su dependencia.

- Sailarekin harremanetan egoteaz edo berba egiteaz arduratuko den taldeko pertsona izendatzea.

- Designar la persona del equipo que realizará las tareas de interlocución con el Área.

- Hitzarmena sinatu duen entitateak bere gain hartzen du hitzarmenean ezarritako baldintza eta betebeharrak betetzea, eta halaber diru-laguntzen lege orokorrean eta aplikatzekoa den gainerako legedian ezarritakoak betetzea, eta iruzur egiteko edo faltsutzeko saioren bat egiten bada diru-laguntza publiko bat eskuratzearren, gerta liteke horrek erantzukizun penala ekartzea, Zigor Kodearen 308. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hau zehazten du:

  Erantzukizun penala da:
  1. Administrazio publikoetatik 10.000 euro baino gehiagoko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, haiek lortzeko betekizunak faltsutuz edo haiek lortzea eragotziko luketen baldintzak ezkutatuz.
